



600 URTE BAINO GEHIAGOZ

Enirio-Aralarko Mankomunitateak 600 urte beteko ditu aurten; 15 udalerrik osatzen dute 4-5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-01-14**

VII URTEA 1.602 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JON ANDER UBEDA BIDE ERTZEAN TALDEKO BAXU JOTZAILEA

«Elementuz beteriko kontzertua emango dugu, bizia eta ikusgarria»

TOLOSA Bide Ertzean taldeak zuzeneko diskoa grabatuko du etzi Leidor aretoan emango duen kontzertuarekin

LANA CDaz gain DVDan kontzertuko irudiak eta taldeari buruzkoak bilduko dituzte; udazkenean kaleratuko dute 2-3



Ezker-eskuin: Fran Iturbe, Karlos Aranzegi, Imanol Ubeda, Joserra Senperena eta Jon Ander Ubeda. I. TERRADILLOS

Igandean IV. Araitz-Beteluko Krossa izango da

ARESO Aresoarrek parte hartuko dute eta sari bereziak izango dira irabazleentzat 7

'Gaztelu'-k Urriza-San Migel izango ditu aurrez aurre berriro ere

LEITZA Iragan larunbateko finala galdu ostean, bikote eta aurkari berberak izango ditu 7

Kirol elkartearen ibilbide luzea, liburuan bilduta

IBARRA Gaur aurkeztuko dute 'Ibarrako Kirol Elkarte. Elkartean Herrigintza' lana Kultur Etxean 6

E **Elkarrizketa**

JON ANDER UBEDA | Bide Ertzean taldeko baxua



Leidor aretoan ari dira musikari tolosarrak buru-belarri etziko kontzertua prestatzen; irudian, atzoko entseguaren une bat. I.T.

«Kontzertu bizia eta ikusgarria emango dugu, elementu askorekin»

Musika » Zuzeneko diskoa grabatzeko kontzertua emango du Bide Ertzean talde tolosarrak, etzi, Leidor aretoan, 22:00etan.

INIGO TERRADILLOS

Kontzertu berezia eskainiko du Bide Ertzean talde tolosarrak etzi, Leidor aretoan, 22:00etan hasita. 10 urte bete berri dituzte, eta urteurrena kontuan hartuta, CD-DVDa egitea erabaki dute. Hala, zuzeneko kontzertua izango da CDn grabatuko dutena, eta horrekin batera kontzertuko irudiak DVDn bilduko dituzte. Leidor aretoan, muntaia handi hau prestatzen daudela azaldu ditu Jon Ander Ubeda taldeko baxuak proiektu honen nondik norakoak.

Etziko kontzerturako guztia prest?

Une honetan oso lanpetuta gaude, guztia prestatzen. Grabaketa bat izango da, eta elementu asko hartu behar direla kontuan esan nahi du horrek, ez soilik musikariaren atala,

guri dagokiguna eta guk gehien menperatzen duguna. Beste elementu asko daude, argiztapena, esaterako. Audioa ez da kanpora begirakoa baino aintzat hartu behar, grabatzerako erabiliko dena ere begiratu behar da; eta ikus-entzunezko dokumentala egiteko ere eszenografia, kamarak... gauza asko kontrolatu behar dira, eta horregatik jende ugari ari gara lanean. Gauzak ongi egin nahi ditugu, eta etorriko diren guztiei kontzertu polita eskaini nahi diegu. Urduritasunak zuzenekoaren egunean hasiko dira nabaritzen, oraingoan nahiko lasai gaude.

Zergatik erabaki zenuten zuzeneko diskoa grabatzea?

Iazko udazkenean bete zituen Bide Ertzean taldeak hamar urte. Hainbat disko egin eta gero, eta be-

reziki, *Non dira?* azken diskoaren ostean, zerbait gehiago egin genezakeela pentsatu genuen, izan ere, disko horrekin eman bezala asko jaso genuen. Beraz, hurrengo pausoa eman aurretik ondo pentsatu behar genuen, eta erabaki genuen zuzeneko egiteko une egokia zela, hainbat kantu baditugulako gure diskografian. Ezohiko disko bat izango da, beraz.

Noiz hasi zineten lanean proiektu berriarekin?

Prestaketa lanetan udan hasi ginen. Ekoizpen fasea luzea izan da. Ekoizleekin eta ideia eta estiloa finkatzen urtebete inguru egin dugu. Ondoren, udan hasi ginen ideiarekin. Hasieran, egitaraua prestatzen egon ginen; 30 abesti inguru aukeratu genituen, eta gero horietatik 22-24.

Zaila izan da aukeraketa?

Bost pertsona gara, sei disko atera ditugu, eta bakoitzaren gustuak desberdinak dira; horregatik, batzuk abesti batzuen alde egin dute, eta besteek beste batzuen alde. Dena den, abesti batzuetan oso

argi izan dugu hasieratik. Bestalde, lehen bi diskoetan Joserra Senperenak ez zuen parte hartu, eta disko horietako abestiak boskotera moldatzeko unean zailtasun apur bat izan dugu.

Ibilbide osoko abestiak izango dira entzungai, beraz?

Bai. Lehenengo diskoetatik hasita joko dugu. Baina kantu berdinak izan arren, biziberritu egingo ditugu, elementu berriak sartuz. Esaterako, akordeoia eta harmonika erabili ditugu. Kantu zahar batzuk berriskuratu ditugu ia ia lehen zuzeneko jotzen genituen bezala, baina beste batzuk nahiko aldatuta entzun ahalko dira, arima bera duten arren. Horrez gain, aipatzekoa da kantu berri bat gutxienez joko dugula.

Kolaborazio berezirik izango al da?

Egia da gaur egun oso ohikoa dela emanaldi berezietan gonbidatuak izatea. Kontzertua berez boskote moduan emango dugu; azken batean finko mantendu garenak Karlos Aranzegi (bateria), Fran Iturbe

(gitarra), Imanol (ahotsa), ni baxuan eta Joserra Senperena azken diskoetan izan gara. Horrek ez du esan nahi sorpresarik ez denik egongo.

Zuzeneko grabatzeaz gain, DVDa ere prestatuko duzue.

Zuzeneko ikusten denaren osagarria izango da. DVDan kontzertuan ikusten ez diren hainbat elementu sartuko ditugu. Dokumental formatoa izango du. Hainbat idazleren eta musikariaren parte-hartzea izango du, eta gure adierazpenak bilduko ditu. Etziko kontzertuaren garapena jasoko duten irudiak ere bilduko ditu.

Noiz ikusiko du argia lan berriak?

Udazkena aldera aterako da kalera. Datarik ez dugu jarri oraingoan, ekoizpenaren ondorenean lan handia izango delako. Diskoari guk tamaina hartu diogu dagoeneko, baina ikus-entzunezkoari, hau da, DVDari tamaina hartzeak lan handiagoa emango duela uste dut. Disko berria eskuratzen duenak lan osoa izango du, hau da, CD-DVDa.

Zein izen jarri diozue lan berezi honi?

Gure artean ideia baten inguruan gabilta, baina ez dugu gauza handirik aurreratu nahi, izan ere, guk kontzertua emango dugu, baina ondoren jarraituko dugu diskoa lantzen, garatzen eta bukatzen. Normalean lanen izenburuak bukaera aldera jartzen ditugu. Baina, tira, esan genezake Leidor izenarekin zerikusia edo erlaziorik ez izango duela.

Garrantzitsua izango da zuentzat Leidorren eskaintzea kontzertua.

Bai. Gure gune naturala dela esan genezake. Tolosan aurkeztu ditugu gure disko guztiak, eta gehienguan Leidorren egin dugu aurkezpena. Orduan, bere logika du kontzertua bertan egiteak. Gainera, esan beharra dago, orain urtebete

«'Non dira?' diskoaren ondoren zerbaite gehiago egin genezakeela erabaki genuen»

«10 urteetako abestiak joko ditugu, baina berrikuntza ugari sartuko ditugu tartean»

«Taldea zuzenean beste ikutu bat du, eta hori grabazioan jasotzeko merezi zuen»

idea aurkeztu genuenean kultura batzordean, eta kultur teknikarien eta Leidor aretoko langileen artean erraztasunak baino ez ditugula jaso proiektuarekin aurrera egiteko. Hori oso garrantzitsua izan da guretzat.

Zein unetan dagoela Bide Ertzean esango zenuke?

Ez gara oso atzera begiratzearen zale, baina hainbat disko eta gero, eta batez ere, *Non dira?* diskoaren ostean zalantzak izan genituen disko berria egin ala zuzeneko bat. Gauza da hainbat abesti baditugula grabatuta estudioan, baina azkenean, abestien bilduma modukoa izango den zuzeneko egitea erabaki genuen. Talde askok zuzenean beste bizitasun bat ematen dute, eta Bide Ertzean ere zuzenekoan beste ikutu bat du, eta hori jasotzeko merezi zuen. Beraz, une ho-

netan atzera begira geratuta gaudela, baina ez gehiegi, kantuberri bat behintzat eskainiko baitugu, eta proiektuak ere baditugu aurrera begira. Garrantzitsua momentua bizitzea da; Bide Ertzean ez ditugu oso aurrera begirako planak egiten.

Beraz, proiektu berriak badituzue.

Lanean gabilta abesti berriei. Lehendabizi zuzenekoari lekua egingo diogu. Etorriko da disko berria, baina gertukoari begiratu diogu, nahikoa lan baitago zuzenekoarekin.

Nolakoa izango da etziko kontzertua?

Bizia izango da, agian topiko bat da hau esatea, baina bizia izango da.

Kontzertu ikusgarria izango da, argi, irudi eta musikaren aldetik. Elementu asko batuko ditugu. Jotzen ari garen bitartean gure irudiak azalduko dira, muntai handia ari gara prestatzen. Buru-belarri arigara perstatzen Leidorren egun hauean, eta nire ustez, ikuskizun bitxia eta ikusteko modukoa izango da.



Fran Iturbe, Karlos Aranzegi, Imanol Ubeda, Joserra Senperena eta Jon Ander Ubeda. I.T.

Tolosarren kontzerturako sarrerak lortzeko hainbat bide

Etziko kontzerturako sarrerak lortzeko hainbat bide izango dira. Batetik, Tolosako Zumbeltz dendan eta Meskal eta Orbela tabernatan salgai daude txartelak. Horrez gain, www.kutxa.net webgunean, Servikutxa eta Telekutxa zerbitzuen bidez ere eros daitezke. 10 euro ordaindu beharko da txartel bakoitza eskuratzeko.

Dena den, badira modu gehiago kontzertura joan ahal izateko, eta

ordaindu beharrik gabe, gainera. Izan ere, Tolosako Udaleko Gazteria sailak eman dira doan joateko aukera ere eskaintzen du. Horretarako 30 urte baino gutxiago izan behar dira, eta gazteria sailaren sms zerbitzuan lagun bati alta eman behar zaio; modu horretan sarrera bat jaso ahal da doan. Sms zerbitzuan izena eman ahal izateko, www.tolosakouda-la.org/sms helbidea sartu behar da,

edo bestela, gazteria@tolosakouda.net helbidera datuak bidali.

HITZArekin bi sarrera doan

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZakere Bide Ertzean taldearen kontzerturak bi sarrera ditu harpidunen artean zozketatzeko. Zozketan parte hartu ahal izateko HITZaren erredakziora (943 65 56 95) deitu beharko da. Bihar izango da horretarako azken eguna.

Laburrak

Inauteriei buruzko bilera, gaur, Kultur Etxean

KULTURA ● Jai Batzordeak deituta bilera egingo dute gaur, Inauterien inguruan. 19:00etan izango da Kultur Etxean.

Gizonen Elkargunea eratzeko bilera, gaur

BERDINTASUNA ● Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka eta berdintasunaren aldeko Elkargunea eratzeko bilera egingo dute gaur, Kultur Etxean, 20:00etan.

Drogomenpekotasunari buruzko hitzaldia

GIZARTEA ● DBhko 1, 2 eta 3. mailako gurasoentzat hitzaldia antolatuko du Orixe Institutuak, *Drogomenpekotasunen prebentzio lana familian* izenburupean. Hilario Garrudo psikologo klinikoa izango da hizlaria. Urtarrilaren 20an, 27an eta otsailaren 10an izango da, 18:30ean, Gorosabeleko liburutegian.

Argazki zaharrak ari dira biltzen Aiz Orratz elkarteak

KULTURA ● Veleta-Aiz Orratz elkarteak 75 urte betetzen ditu aurten. Hori dela eta, argazki zahar eta berrien erakusketa ari dira prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Hala, bazkideek, bazkide ohiek eta, oro har, elkarteari buruzko zerbaite dutenek, elkartera eraman dezakete. Informazio gehiago nahi duenak 655 73 87 39 telefono zenbakira dei dezake.

GKo Gallery-ren lan berria hilaren 30era arte

KULTURA ● Kale Nagusian kokaturik dagoen GKo Gallery-k lan berria du erakusgai egunotan. *Zer da hau?* izena du, eta Garikoitz Murua galeriaren sortzaile eta kudeatzailearen eskutik dator. Kasu honetan, ez da lan fisiko bat izango ikusgai jarriko dutena, erreflexio une bat izango dela argitu dute, eta hilaren 30era arte iraungo du. Galeria ireki zenetik gaurdaino egin eta lortu dutenari buruz gogoeta egiteko bidea izango da. www.gko-gallery.com webgunean parte hartu daiteke.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

PATXI UNZAIN FURUNDARENA



Txorieta argiena, txantxangorria; txorieta alaiena, txantxangorria; gure bihotzetan egongo zara betirako, aitona



ERRENTERIA-ORERETAN 2009ko urtarrilaren 14an

Zure bilobak,
Almike, Erkuden, Eñaut eta Eider



Garai bateko argazki ugari biltzen dira Kirol Elkarteak kaleratutako liburuan. IBARRAKO KIROL ELKARTEA

Herriko kirol elkartearen ibilbide luzea biltzen duen liburua kaleratu dute



Ibarra » 'Ibarrako Kirol Elkartearen Herrigintza (1966-2008)' gaur aurkeztuko dute Kultur Etxean, 19:30ean.

REBEKA CALVO

1966. urtean sortu zuten Ibarra Kirol Elkartearen. Orduztik ekimen ugari egin dituzte, urtean eta bizi-modu aldaketan poderioz murrizten joan direnak, baina ondasun oparora utzi dutenak herrian. Berrogei urte pasatxo igaro dira, hortaz, eta ibilbide luzea biltzen duen liburua kaleratzeko unea ere iritsi zaie. Horregatik egin dute *Ibarrako Kirol Elkartearen Herrigintza (1966-2008)* liburua, hain zuzen, gaur 19:30ean aurkeztuko dutena jendaurrean Benito Izagurre kultur etxean.

Elkarte sortu zenetik dauden lau akta liburuen laburpenak eta argazki zahar ugari bildu dituzte

Lanean «elkarte sortu zenetik dauden lau akta liburua» biltzen dira, baina behar bada liburuko altxorrik preziatuena bertan biltzen diren argazkia zaharrak dira, non, seguru, herritar bat baino gehiagok ere topatuko duela bere burua.

Elkarteko Ramon Iglesias kideak esan duenaren arabera, «argaz-



Txapelketa asko antolatu izan ditu elkarteak. IBARRAKO KIROL ELKARTEA



Jende asko biltzen zen antolatutako ekintzetan. IBARRAKO KIROL ELKARTEA

kiak urtez urte sailkatuak azaltzen dira». Horiek horrela, liburua bitan zatitu dute Iglesiasek esandakoaren arabera: «Batetik, akta liburuen bileretako laburpen txikiak eta argazki bilduma, bestetik. Pertsonaia desberdin asko ikusi daitezke bertan, aurreneko urteetan egiten ziren zirklokrosa edo motokrosa lasterketan parte hartutakoak, bazkideen arteko festak, lasterketa desberdinak...».

'Sebas' hil zutenekoa

Makina bat bizilagun pasa dira elkartetik eta baita Sebastian Goikoetxea Mariezkurrena, *Sebas* ere. *Sebas* guardia zibilak hil zuen 1977. urtean eta hori dela-eta herrian izandako elizkizun eta omenaldiaren irudiak ere ikusi daitezke libu-

ruan. «Liburua oso interesgarria izan daiteke garai hori bizi izan zutenentzat, bazkideentzat...», esan du Iglesiasek.

Liburua argitaratzeko nahia herriko apaizak, Emeterio Sorazuk, izan zuen: «Emeterio elkartearen zuzendaritzako kideekin jarri zen harremanetan eta dagoen informazio guztiarekin liburu polita egin zitekeela esan zigun. Guztia bildu, nolabaiteko zirriborra egin zuen eta hori egitea zenbat kostatuko zen esan zigun. Hurrengo bileran hitz egin eta bazkideen artean egin ahal genuela erabaki genuen».

Guztira 500 ale kaleratuko dituzte eta 20 euroren truke jarriko dituzte salgai herriko denda eta taberna desberdinetan.

D3Maren aldeko sinadura bilketak daude herri desberdinetan

Hauteskundeak » D3M plataformaren informazioa emateko batzarrak ere egiten ari dira herri desberdinetan.

ERREDAKZIOA

Martxoaren 1eko hauteskundeetan parte hartzeko ezker abertzaleak aurkeztutako Demokrazia 3 Milioi (D3M) plataformaren aldeko sinadura bilketak hasi dira hainbat herritan. Amezketan bihurtik hilaren 22ra arte izango dira udal-erlekuak 08:00etatik 15:00etara eta ostiralean 18:00ak arte. Asteasun ere bihar hasiko dira sinadura bilketarekin udal-erlekuak 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Era berean, datorren astelehenean eta ostegunean 10:00etatik 14:00etara izango dira eta asteazkenean 16:00etatik 20:00etara. Tolosan berriz, gaur hasiko dira sinadurak biltzen eta ordutegia honakoa da udal-erlekuak: gaur 08:00etatik 11:00etara, bihar 10:00etatik 13:00etara, ostiralean 08:00etatik 11:00etara, larunbatean 11:00etatik 13:00etara eta datorren asteartean 08:00etatik 11:00etara. Notaritzan, aldiz gaur 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara sinatu ahal da, bihar eta ostiralean 10:00etatik 13:00etara, eta datorren astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala 10:00etatik 13:00etara.

Era berean, D3Mren informazioa zabalatzeko ere batzarrak egiten ari da ezker abertzalea. Amezketan bihar 20:30ean egingo dute balioanitzeko gelan. Ibarra ere bihar egingo dute herri batzarrak 19:30ean, Kultur Etxean. Tolosan ere bihar izango da 20:00etan Udal-erleku Pleno Aretuan.

Laburrak

'Germinal' filma, gaur ikusgai Gaztetxean

IBARRA » Gaur 21:00etatik aurrera *Germinal* filma eskainiko du Ibarra-ko Autoeskola Antikapitalista taldeak herriko Gaztetxean. Filma Emile Zola idazle frantsesaren eleberrian oinarritzen da eta langile-borroka du ardatz.

Hautesle-zerrenda ikusteko aukera

ALEGIA » Alegiako Udal-erlekuak esan duenez, hilaren 19ra arte jarri du ikusgai hautesle-zerrenda. Udal-erlekuak dago zerrenda astelehenean ostiralerako 09:00etatik 14:00etara eta larunbatean 11:00etatik 13:00etara.

Otsailaren 13a baino lehen aurkez daitezke diru laguntza eskaerak

Ibarra » Ohikoa den moduan bi diru laguntza mota izango dira; inprimakiak Udalaren webgunean daude.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak jakinarazi duenez, bertako 2009. urterako diru laguntzak jasotzeko azken eguna otsailaren 13a izango da. Benito Izagurre kultur etxean aurkez daitezke eskaera orriak eta hauek Udaleko webgunean topa daitezke (www.ibarrakoudala.net). Sailak, era berean, ohikoa den moduan bi diru laguntza mota ezarri ditu: 2009an garatuko diren kultur jarduerari eta egitarauari bideratutakoak eta aurrean garatuko diren ezohiko jarduerari eskainitakoak. Biak ala biak, Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultur eta gazte taldeei zuzendutakoak dira. Informazio gehiago nahi duenak Kultur Etxera jo dezake.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfer: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udal-erlekuak: 943 675858

Tolargi: 943 650016

ostiralerako 09:00etatik 14:00etara

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Urtarrilaren 18an, igandean, Herriarteko Krossa lehiatuko da Betelu eta Atallu artean. HITZA

IV. Araitz-Beteluko Herriarteko Krossa leihatuko da igandean

Kirola » Aresorekin batera harana osatzen duten herrietako korrikalariak sari bereziak edukiko dituzte.

ERREDAKZIOA

Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri eta gure eskualdeko Aresoko Kirol Mankomunitateak IV. Araitz-Beteluko Herriarteko Krossa antolatuko du Herri Kirolak Araxes-ekin batera.

Herriarteko Krossean helduek eta haurrek parte hartu ahal izango dute.

Urtarrilaren 18an, 12:00etan Antolatzaileek 8 kilometroko ibilbidea prestatuko dute korrikalariarentzat urtarrilaren 18an, igandean: Betelu-Arribe-Atallu-Arribe-Betelu.

Lehenik haurrek irtengo dira lasterka, 10:00etan hasiko baita

Umeen Krossa. Ondoren helduen txanda ailegatuko da. Hauek 12:00etan irtengo dira. Denak Betelutik irtengo dira, joan-etorria egin ostean bertan amaitzeko.

Izena emateko moduak

Helduek bi aukera edukiko dituzte Herriarteko Krossa korritzeko. Egunean bertan, Beteluko plazan 10:45etik 11:30era izena emanda. Kasu honetan 10 euro ordaindu beharko ditu partaideak.

Bigarren aukera alde zaurretik inskripzio orria betetzea izango litzateke, www.herrikrossa.com webgunean sartuta. Modu honetara 8 euro nahikoak lirateke izena eman eta igandean korrika ibiltzeko Betelutik Atallurako errepidean.

Umeen Krossari dagokionez izen-ematea dohainik edukiko dute. Horretarako, karrera hasi aurretik Beteluko eskola parean egongo den postura joan beharko dute.

Irabazleen sariak

Lehiaketa guztietan bezala, IV. Araitz-Beteluko Herriarteko Krossa amaitzen denean, irabazleei sariak banatuko dizkiete.

Gizon eta emakumezkoentzat egongo dira sariak. Saillapen orokorreko lehenek, 180 euro irabaziko dituzte. Bigarrenen 120 euro eta hirugarrenen 80 euro.

Araitz, Areso, Betelu, Lekunberri eta Larraun herriek osatzen duten haraneko lehenek 70 euro irabaziko dituzte. Bigarrenen 50 euro eta hirugarrenen 30 euro.

40 minutu baino lehen lasterkerata amaitzen duen haraneko talde bakoitzak axuri eder bat jasoko du sari bezala.

Errekorra gainditzen duen korrikalariak berriz 150 euroko ordainduko dute.

Azkenik, irabazi ez arren, lehendabiziko 250 korrikalariarentzat opariak egongo direla jakinarazi dute Herriarteko Krossean antolatzaileek.

Etxen bezela...



» Herrira begira

Aimar Sagaztibeltza
Futbol jokalaria

Nere biziko aurreneko aldiz abendun 21en izan nitzen Andaluzin. Izane, eguerritako geldialditxoan aurreko azken partidue Xerezene jolastu giñun (irabaztea lortu giñun zorionez). Beraz, saillapenen bizi dun egoera nahiko gozoa da, lasaie.

Neri dagokionez, pena emantzen minutuik jokatu ez izanak, beño beno, konbokatortian sartzeik espero enula kontutan hartuz, ba esperientzi aberats gix hartzen dot!

Hoi bai, hegazkiñei dioaten bildur galanta konprobatzeko balio izandu dit bidai honek. Sufrimen bat da netzat transporte hau, gehio biatzea eragozten diten oztopo handi bat. Tentsio ikeragarri joaten naiz; eziñen! jeje. Garbi dauket ahal doten guzitan saihestuko doten baliabidea dela. Beno, behintzat onik aiatu giñen eta minutuik galdu gabe Leitzera joan nitzen aste bat pasatzea.

Ze izaten dien gauzek: nere jenden artean disfrutatzeko eta hain-

bat gauze itteko nahiko denbora nula pentsatzen nun, beño oker neola oharatu naiz. Izane, nahiz ta ikeragarri gustora eon naizen, opor hok oso ongi aprobetxatu ez izanan sententzioekin bueltatu naiz Tarragona aldera. Triste da onartzea beño halaxe da. Eon nahi nun jenden erdikin ez naiz eon, eondu naizen batzukin ez nik nahi bezela, bixitatu nahi nitzen nere gustoko txoko berezitan apenas eonaizen... aix. Beño beno, 7 eun ohar kaben pasatu zaizkitenez oso ongi sentituta naizen señaie garbie dela esan behar.

Zefien polite den oparik jasotzea! Gañontzekoai bezela neire ilusio latza itteit, eta aurten olen-tzeroa ongi portatuda, jeje. Gañea ezuste berezie hartu nun opari batekin, nahiz eta oaindik ez toten osota deszifratu irakurgai. Hizketaldi bat euki behar hortako. Ezin esan hemen zer tzen, jeje.

Azkenik, Leitzene onitzen azken asteburun Aurreran eunez gozatzeko aukera eukinun eta zapore goxo horrekin gelditzen naiz. Nola ez, lerro hok aprobetxatu nahi nituzke Aurrera Elkartek irauñ dezan lana in duen eta oaindik aidenten guziri zoriontzeko, ezkutuko lana itzela baita. Bereziki Aurrera futbol taldea bizik eotteko jokalarik berak daukan meritu paregabea azzimarratu nahi nuke. Harrigarrie da.

Besteik gabe, Urte berri on! irakurle.

Errebantxa aukera edukiko du 'Gaztelu'-k

Leitza » Iragan larunbatean finala galdu ostean, berriro bikote eta aurkari berberak edukiko ditu igandean Iñaki Agirre leitzarrak.

ERREDAKZIOA

Huarteko Euskal Jai Berri pilotalekuan erremonte partida berezia jokatu du igandean Iñaki Agi-

rrek. Iragan larunbatean Binakako Txapelketa nagusiaren finala galdu ostean, berriro ere Ezkurrarekin osatuko du bikotea *Gaztelu* leitzarrak. Hori ez nahikoa eta Urriaza-San Migel, Txapelketaren irabazleak edukiko dituzte aurrean errebantxa kutsuko partida honetan.

Jaialdia 16:30ean hasiko da eta 25 urte azpiko pilotazaleek sarrera dohainik edukiko dute.

Mus Txapelketa Leitzan

ERREDAKZIOA

Iparra Hegoak, Bai Euskal Herriari ekimenak eta Orreagak elkarlanean Euskal Herriko Mus Txapelketa antolatu dute hilabete honen barruan. Leitzan bi asteburutan jokatuko dira partida guztiak, hiru egunetan zehar.

Mus Txapelketaren datak

Etzi, ilbeltzaren 16ean, hasiko da Txapelketa Leitzan. Torrean 21:30ean elkartuko dira mus jokalariek.

Hurrengo egunean, ilbeltzaren 17an, Beatrizenean edukiko dute hitzordua jokalariek, 17:00etan, suaren goxotasunean lehiari ari zeko.

Azken data ilbeltzaren 24a izanen da. Larunbat honetan azken partidak eta ondorioz finala jokatuko dira, Beatrizenean 17:00etatik aurrera.



Bi eskualdeetan muserako afizioa nabarmena da. NEREA URBIJU


Izen-ematea eta sariak

Euskal Herriko Mus Txapelketan izena emateko bikoteko 20 euro ordaindu beharko dituzte. Jokalari bakoitzeko 10 euro, hortaz.

Txapelketa irabazten dutenek axuria jasoko dute ordainetan. Bigarrenen txuletak irabaziko dituz-

te. Hirugarren bikoteak bi oilako eta laugarrenak gazta.

Iparra Hegoa, Bai Euskal Herriari ekimenak eta Orreagak antolatuko dituzten txapelketa honetan parte hartzen duten jokalariek guztiei ardo botila eta egutegi bat emanen zaie.



EUSKAL JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Emeterio Sorazuren eta J.M. Arrutiren *Ibarra Kirol Elkartea - I.K.E. Sociedad Deportiva Ibarra 1966-2008* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean 19:30ean.
- **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan Belabeta kiroldegian izango den Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Piratak* ikuskizunerako sarrerak salgai jarri dituzte 6 eurotan Ibarra-ko Zubiaurre Tabernan, Lurdes dendan, Errotatxon, Uzturpe Ikastolan eta Tolosako Zumbeltz disko dendan.
- **Tolosa.** Martxoko hauteskunde-atarako hautesle zerrendak ikusgai daude udaletxeko beheko solairuan, erreklamazioak egin ahal izateko.
- **Tolosa.** Eski irteera Formigalera antolatuta du Oargi mendi elkarrekin hilaren 17 eta 18rako. Informazioa eta izen-ematea, 943 675612, 688 698642 eta www.oargi.org helbidean.

Erakusketa

- **Tolosa.** *Etxearek ere badira adingabe horiek*, bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren inguruko argazki erakusketa eta bisita gidatuak Kultur Etxean.
- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
 - **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Urteko lehen ibilaldiak, prest

Mendizaletasuna » Sagain mendi taldeak eta Aizkardi mendi elkarrekin igande honetan ekingo diote 2009ko egutegiari.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan mendiarekin hitzordua dute Villabonako Aizkardi eta Asteasuko Sagain elkarrekin. Biek ere iganderako irteerako antolatuta dituzte. Asteasukoek lasai ekingo diote urteko egutegiari eguerdirako bueltan izango baitira. Billabonatarrek, berriz, 7 ordu inguruko ibilaldia antolatu dute.

Asteasukoek Gipuzkoatik ez irteeta erabaki dute. Hain zuzen ere, igandean izango da ibilaldia eta Aranotik Besabira antolatu dute. Bertan Zaburu (778 m.), Onddo (781 m.) eta Adarra (811 m.) gainak igarotzeko aukera emango die bertarantz direnei. Onddo eta Adarra bitartean Etenetako Menhir-a ikusteko parada ere izango dute. Irteera egun erdikoa da, eta bazkaltzeko garairako Asteasun bueltan izatea espero dute. Zailtasuna ertaineko ibilaldia dela jakinarazi dute elkartetik. »Gehien bat iraupenarengatik du zailtasuna, lau ordu inguru, izan ere, ez dauka zailtasun teknikorik», argitu dute Sagain elkarrekin.

Irteera 08:00etan izango da, Asteasuko udaletxea aurrean. Esan bezala, itzulera bazkaltzeko orduan helduko dira.



Aizkardiakoek Ezkurratik Sunbillara irteera antolatu dute. HITZA

Aizkardi, Ezkurratik Sunbillara
Villabonako Aizkardiak ere gogor ekin nahi dio urteari eta Ezkurratik Sunbilla irteera antolatu du igandera.

Goizeko 07:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik. Ezkurratik abiatuko dira (400 metro), Iruñiarri gailurreraino (1051 m.). Gailurretik Lizartxetaingo jaitsiko dira (949 m.). Behin hona helduta, Loitzatera igoko dira (1048 m.) eta hurrengo helmuga Ekaitza (1047 m.) izango da. Baina hemen ez da amaituko, Mendaur (1131 m.) ere igoko baitute. Azken gailurretik

Sunbillara jaitsiko dira. Elkartetik adierazi dutenez, 7 orduko ibilbidea izango da eta 28 kilometro izango dira orotara.

Izena emateko azken eguna biharkoa izango da. Interesatuak elkartean bertan eman dezakete edota 943 694458 telefono zenbakira deituta.

Oargikoak Formigalera

Oinen gainean ez, eskien gainean igaroko dituzte Oargi mendi elkarrekin asteburu. Izan ere larunbatean eta igandean Formigalera egingo dute txangoa.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaletza bereziak:

| | |
|-----------------|--------------------|
| 5 liburu 80€ | 10 liburu 140 € |
|-----------------|--------------------|

Salmenta puntuak:
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan,
• Ibarra-ko Lurdes liburutegian,
• Villabonako Basajeun liburutegian.

